ASTEKARIA | 2016ko maiatzaren 6an | XIX. urtea | USURBIL | 656. zenbakia | www.noaua.eus

TOKIKOM

# noaua



**Udalbatza osoa, Lurraldebuseko murrizketen aurka**

**Lau urteren ondoren, Usurbilgo pilotariak Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketan**

**Asteburu honetan, ‘Heroiak’ antzerkia eta Jabier Muguruzaren kantaldia Sutegin**

## Saneamendu sarea amaitu gabe dagoen arren, garbiago datoz eta doaz Oriako urak


noqua
Maiatzak 15, igandea
"Udaberria: Sagastiak loretan eta txoriak kantuan"
Mikel Olano txorietan adituarekin, Saizar Sagardotegian, 10:00etan, txorien kantuak entzuten ikasteko aukera, ondoren kantuak entzutera, Anaerreka aldera.
Ekitaldi gehiago egongo dira San Isidro egunean zehar..


USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA
CIFP USURBIL LHII
Erdi eta goi mailako zikloak
A, B eta D Ereduak
www.lhusurbil.com
Maiatzak 7, 11 eta 14
ATE IREKIAK
943 36 46 00


tobyngana
english SCHOOL
Udako ingeles intentsiboak
Hizkuntza lantzeko edo Cambridge azterketen prestakuntza
Aste askeak, 4 egunekoak
Ekitaldiak ingelesez
Antzerkia, altxorraren bila, jokuak, bideo grabaketa, etab.
Hamabostaldiak, egunero
JATORRIKO IRAKASLEAK
Maila eta adin guztiak
Summer!
INGELESA - Ekaina/Uztaila 2016
Eman izena lehen bait lehen!
686 499 775 (Toby) • tobyngana@hotmail.com • Alperroburu 2, Usurbil

## Albistea iruditan

# Txokoaldeko frontoiaren inguruko kexua

Txokoaldeko frontoia erabiltezin dago zuhaitz bat pilotaleku gainera erori ondoren. Udaltzaingoak zinta batekin inguratua du pilotaleku sarrera. Ezin da bertara sartu. Herritar batek idatzi digu, gaiaz kezkatuta. “Badira egun dezente paseak, Txokoaldeko pilotalekuan jolasten ginela, zuhaitz bat beste haritz baten gainera erori zenetik. Udaletxera jo genuen, teilatu gainera eroriko zela jakinaraztera. Zerbait egingo zutela adierazi ziguten eta hiru astera erori da. Orain zintak jarria darrai. Galdera da, ia pilotalekua lasai erabiltzerik ba ote den?”, galdetzen zigun. Galdera jaso bezala helarazi diogu Udalari. Arazoa bideratzen hasia dela, baina lanak amaitu artean segurtasunagatik pilotalekua itxita egongo dela adierazi digute.



**Zuhaitz bat frontoi gainera erori eta geroztik ezin da erabili. Udalak aditzera eman digunez, “saiakera guztiak egingo ditugu frontoia lehengo egoerara itzultzeko” .**

## Zuhaitza frontoi gainera

“Badira aste batzuk, frontoi ondoko jabeek zuhaitz mozketari ekin ziotela eta zuhaitz horietako bat frontoi gainera erori zitzaiela. Kalteak nabariak ziren eta frontoia erabili ezinik gelditu zen ondorioz. Udalak kaltea sortu duenarekin harremanetan dago eta konpontze lanak definituta berehala hasteko moduan izango garela espero dugu. Bitartean puskatutakoa eta erortzeko arriskuan zegoena kendu zen, baina frontoiak jarraitzen du erabateko segurtasunik gabe eta konpondu arte ezin da erabili. Horrela dago gaia. Ezbehar baten ondorioak dira frontoiko kalteak eta aseguru etxeko peritoarekin jarraipena ematen ari gara. Udalak saiakera guztiak egingo ditu frontoia lehengo egoerara i–tzultzeko”, berri eman digutenez.

## Laburrean

### Udal dirulaguntzak, alegazio epean

Kultura, Kirola, Gizarte Zerbitzuak, Ingurumena eta Nekazaritza-abeltzaintza eremuetako diru-laguntzen ebazpenak onartu dira. Alegazioak aurkezteko epea maiatzaren 9an amaituko da.

### Txupinazoa nork bota beharko luke zure ustez?

Emailez jakinarazi dezakezu kultura@ usurbil.eus helbidera idatziz, edo papertxo batean idatzi eta Kiroldegian, Sutegin eta Potxoenean jarri dituzten kaxetan utzi dezakezue.

### Jaietako egitaraua diseinatzeko lehiaketa

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 20an amaituko da. Saria: 500 euro. Egitarauko testua eta oinarriak Potxoenean daude eskuragarri. Argibide gehiagorako: 943 371 999 / kultura@usurbil.eus

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege–Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala
AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal presoak
Euskal Herrira!
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.**



Luis Aranalde

# "Zu"

Bukatu berria dut Anjel Lertxundi oriotarraren *Zu* nobela. Asko gozatu dut eleberri hori leitzen. Euskara bikaina, gai zaila, baina, egoera larri hori biziari kanta bihurtzen jakin du Anjelek. 2012an agertu zitzaion bere emazteari pankreako minbizia eta gertaera horrek betiko aldatu zuen senar-emazteen bizitza. Ideia pilo bat datorkit burura, baina, saiatuko naiz hiru puntutxotan laburbiltzen:

**1-Amorrua:** zer ote da zure andreak minbizirik gogorrenetako bat duela jakitea? Ez dago hitzik egoera hori adieraziko lukeenik. Asaldatuta gelditu ziren, errabiaz beteta. "Zerri apote nazkagarria, sudurra ondo itxi, hire zerritegian sartu eta hagoen zokoraino sartu nahi nikek. Hi eta ni aurrez aurre. Minbizia haiz, parasito totala, naturak eman duen akainik alferrena. Hiltzaile bat haiz, kriminal anker sadiko batena duk hire izena. Aurrez aurre gaudek: errespetua diat, beldurrik ez". Honela mintzatzen zaio kantzerrari. Bere malaletxe guztiarekin idatzirik dago kapitulu hau, eleberrian agertzen diren paragrafo bortitzenak eta literarioki ederrenak agian bertan daude. Askotan deitzen dio kantzerrari putakumea. Hain absurdua iruditzen zaio bizitza trantze horretan; Tolstoiri jarraituz honela dio: "bada hemen ondo ez dagoen zerbait".

**2-Etsipenik ez:** diagnostikoa eman ziotenean Zuri, "putakumeak ez digu irabaziko" esan zioten elkarri. Egoera onartu eta borrokatzea izan zen beren erabakia. Joxean Artzek esaten duena bere poema batean: "nahiz eta heriotza helduko zaidala jakin, ez dut haatik bere aurka borrokatzetik etsiko, ez nau ustekabean harrapatuko; bizi naizeño, bizia kantatuko dut". Anjelek bazekien ondo asko "bizitza guztian jardunda ere,ondo ikasten ez den lanbide bat dela gaixo baten senarra izatea". Hamaika aldiz galdetzen dio bere buruari: ondo ari al naiz? Gehiago egin al dezaket? Eta abar. Ibilbide honetan zalantza existentzial asko datozkio burura bikoteari, baita garai batean zuten fedearen inguruan ere. Biak urrun sentitzen dira kristau fedetik, baina, Zuri esaten dionean aspaldiko lagun batek "gauero errezatzen dinat higatik", eta jakiten duenean ba omen direla mezak enkargatu dituztenak ere bere alde, Zuk eskertu egiten ditu, isilpeko besarkada elkartasunezkoak iruditzen zaizkio. Beste behin Arantzazura joateko asmoa agertzen dio Zuk senarrari. Aldian behin hara joan beharra izaten du. Anjelentzat, gizakiok erromesak gara eta "oso ondo ulertzen ez ditugun sentimenduak dauzkagu". Arantzazuk badu indar, dei berezi bat euskaldunontzat: ama lurrarena, arimarena, sentimendu erlijiosoarena... "Seguru asko hori guztia da Arantzazu. Eta gehiago".

**3-Biziari kanta:** Artzeren "bizi naizeño bizia kantatuko dut" gauzatu nahi du bikoteak, Anjelek esaten duen "ars vivendi" bat partekatu nahi duela emaztearekin. Izan ere, une tragikoenetan ere gure bizitza biziari kanta bihurtzeak prestatzen gaitu duintasunez hiltzeko. Zurrut puska bat eginda zegoen Igeldotar batek ("in vino veritas") esan zidan behin: "zuek, apaizok, hiltzen laguntzen diguzue eta ez bizitzen". Ez dut uste eta ez nuke nahi apaiz multzo horren kide izan. Nik ere hiletetan biziaz hitz egiten dut batez ere, ez heriotzaz.

"Heriotza saihetsezina da, bai, eta ez daukagu eskapurik. Baina izandako bizitzak edertzen du, ezerk edertzekotan, heriotza", dio Lertxundik.

Azkenengo eszena da, agian, hunkigarriena eta ondoen adierazten duena bikotearen apustua biziaren alde. Ospitalerantz abiatu dira, azken urteotan makina bat aldiz egin duten bidea, noski. Ospitaleko ate nagusitik sartu eta korridore luze batetik bestera ibili ondoren iristen dira beren helmugara. Aurkitzen dute gela. Han dago beren alaba gazteena ume jaio berri batekin. Bikotearen laugarren bilobatxoa. Haurra besoetan hartu arteko onik ez du izan amonak. "Munduko altxorrik preziatuena baino pozikago hartu du Zuk". Senarrari erakusten dio haurra eta senarrak argazki bat ateratzen die mugikorrarekin". Hobeto adierazterik ez da egongo Lertxundik errebindikatzen duen "ars vivendi"hori.

Martin Iturbe lagun zaharra hil berria da. Honela zioen bere poema batean: "gau ilunak ere badu bere poza egunsentiaren esperantza galtzen ez duen bitartean". Zu eta Anjel: izan bihotz!

Aritz Gorriti | Idoia Torregarai | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | **Luis Aranalde** | Luken Arkarazo | Imanol Ubeda

## Irakurketa topaketa Sutegin



Danele Sarriugarteren "Erraiak" liburua eta egilearen ibilbidea ezagutzeko aukera izan zuten apirilaren 27an, Sutegi udal liburutegian ospaturiko irakurketa topaketara hurbildu ziren lagunek. Idazlea ere bertan izan zen.

## Omenaldia Santuenean



Aurten 75 urte bete dituzten santuenearrei omenaldia egin zitzaien apirilaren 24an Atxega Jauregian ospatu zuten bazkarian. Ondoko irudian dituzue omenduak. Zorionak!

# Duela 20 urte abiatu zen NOAUA!



**NOAUA! Kultur Elkarteko bazkideak, 1996ko Sagardo Egunean. 0 zenbakia dute eskuartean. Lehen zenbakia beranduxeago, ekainaren 28an eman zen argitara. Argazkia: Joxean Labaien.**

Hala da. Usurbilgo herri aldizkariak hogei urte beteko ditu laster. 1996ko ekainaren 28an argitaratu zen lehen zenbakia. NOAUA! abiarazteko lanak, ordea, askoz lehenago hasi ziren. Bada gakoa izan zen egunik: 1996ko Sagardo Eguna, esate baterako. Ordukoa da ondoko argazkia.

Animoz ez ezik, diruz ere NOAUA! babesteko ahalegina egin zutenak ageri dira: bazkideak. Hori da argazkian diren guztiek komunean duten ezaugarrietako bat.

2016an gauden honetan, orduan bezain garrantzitsua zaigu bazkideen ekarpena. Euren babesa eta euren ekarpena aitortu nahi dugunez, argazkia errepikatzera goaz. Orduan bezalaxe, Sagardo Egunean. NOAUA!ko bazkide zein irakurle soil, ordukoak eta egungoak: Hitzordu bat dugu maiatzaren 22an igandea. Eliza eta Potxoenea ondoko parkean. Kale Nagusiak eta Irazu Kaleak bat egiten duten tokian.

"Guzti hauek bat egin dute NOAUA kultur elkartearekin eta aldizkariarekin. Zuretzat ere badago tokirik argazki honetan. Egin zaitez bazkide!!!". Hitzok eta aldameneko argazkia NOAUA!ko lehen zenbakiko kontrazalean topatu ditugu.

1996tik hona, gauza asko gertatu dira. Beste arlo askotan bezala, komunikazioan ere aldaketa asko eman dira. Baina orduan bezain garrantzitsua da bazkideek eskaintzen diguten babesa. 1996tik hona, erronka ezberdinei aurre egin behar izan diegu, garai berrietara egokitu, eta bazkideen berotasunik eta babesik gabe, nekez egingo genuke aurrera.

*MAIATZAREN 22AN*

***"1996ko Sagardo Egunean bezalaxe, NOAUA!ko bazkideekin eta irakurleekin argazki bat aterako dugu"***

**"Zuen zain izango gara"**

Eta orain bezala, aurrerantzean ere, desafioa ez da samurra izango. Orduan bezain beste behar zaituztegu. Eta baita etorkizunean ere. Batu gaitezen. Eta berritu dezagun euskararekin eta euskal kulturarekin hartu genuen konpromisoa. Maiatzaren 22an, zuen zain izango gara.

## Ospakizun urtea

Hogei urte bete ditu NOAUA!k. Eta horrek eragina izango du urte osoko gure martxan. Aldizkarian, adibidez, atzera begira jarri eta garai bateko kontuak eta pasadizoak berrituko ditugu. Hemeroteka lana eginez, bazkideak elkarrizketatuz, sortzaileen hitzak jasoz... Baina gure kaleko jardueretan ere zeresanik izango du 20. urteurrenak. Sagardo Egunean, azaroko Kulturaldian, Santo Tomas egunean... besteak beste. Ospakizun urtea izatea nahiko genuke. Lehen hitzorduaren berri baduzue: maiatzaren 22an, eguerdiko 11:00etan, Sagardo Egunaren bueltan. Laster etorriko dira deialdi gehiago.

## #NOAUAK20 traola

Orrialde honen goikaldean ere ikusiko zenuten. Aurten, behin baino gehiagotan egingo duzue topo marka horrekin: #NOAUAK20. Traola gisa ere baliatuko dugu.

# Urteurrenaren aitzakian, aldizkarian atal berriak

Etengabe eraldatzen joan da NOAUA! aldizkaria. Hamaboskari jaio zen baina hamar urte pasatxo dira astekari bilakatu zenetik. Eta aldizkarian ere, aldaketak eman dira, azalean zein mamian. Urteurrena, hain zuzen, atal berriak abiarazteko baliatuko dugu.

**Komikia, hamabostean behin**

Joseba Larratxerekin tira komikoa itzuliko da NOAUA!ra. Lehen aleak, behintzat, umoretsuak izango dira. Maiatzaren 13an hasiko da. Adi, beraz.





**Joseba Larratxe eta Ion Markel Saez de Urabain, NOAUA!ko laguntzaile berriak.**

**"Klik batean"**

Esaerak dioenez, "irudi batek mila hitz baino gehiago balio du". Ez beti. Baina maiz bai. Irudi baten aurrean, ez dago gauza handirik erantsi beharrik-eta askotan. Ion Markel Saez de Urabain argazkilariari hain zuzen, enkargu hori egin diogu: argazki bidez edertu ditzala orriok. Astero, "Klik batean" atala osatuko du. Lehen ekarpena zenbaki honetan bertan duzue ikusgai (12. or).

# Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntza mantentzeko eskaera Foru Aldundiari

Eztabaida piztu du eta erabaki honen aurkako mobilizazioak ere egin dituzte eragile ezberdinek azken aldian. Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzaz (DBL) ari gara. Aurreko legegintzaldian Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarri zuen laguntza lerro hau ezabatzeko asmoa du egungo Diputazioak, eragiten duen “erakartze efektua” argudiatuz. Aipaturikoa, protestak eragin dituen gaia, apirilaren 26an egin zen osoko bilkurara eraman zuen EHBilduk, mozio moduan.

Aldundiak “prestazioa bertan behera uzteko duen asmoari uko egin diezaiola”, eskatzen du testuak. Jone Urdanpilleta zinegotziak gogora ekarri zuenez, Aldundiaren erabaki honekin, 1.500 familia inguru eta adin txikiko 700 haur eta gaztetxo estaldurarik gabe geratuko dira. Urrutirago joan gabe, Usurbilen 5 familia unitatek eskatu zuten laguntza hau 2013an, seik 2014an eta zazpik iaz. Aldundiaren erabaki honekin, “estaldurarik gabe uzten den jendartea” izango da, Jone Urdanpilletaren esanetan.

Gobernu taldeak osoko bil–kurara eramandako testuak gogorarazten duenez, “ongizate soziala herritarren eskubidea da”. Honenbestez, “Usurbilgo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Diru sarrerak Bermatzeko Laguntza (DBL-AGI) izeneko prestazioa erasotzen jarraitzeari utzi eta, bereziki, hori justifikatzeko argudio xenofoboak bere hizkeratik desagertarazteko”.



**EHBildu eta PSE bat etorri ziren. EAJ alderdiak aurka bozkatu zuen. Josune Urkola EAJko kidearen esanetan, Foru Aldundiak ez du laguntza hau ezabatzeko asmorik. Aldatzekoa baizik, “gizarteratzeko helburua ez duelako betetzen”.**

*USURBILGO DATUAK*

***“Udal iturriek aditzera eman zutenez, Usurbilen 5 familia unitatek eskatu zuten laguntza hau 2013an, seik 2014an eta zazpik 2015ean”***

## Erroldatze denbora murriztea

Laguntza eskatzeko tramitazioa erraztea ere galdegiten du mozioak. Aldundiari eskatzen zaio, laguntza hau “jaso ahal izateko eskatzen den erroldatze denbora hiru urteetatik urtebetera pasa dezala, hain zuzen ere, lehen zegoen bezala”. Eta bide batez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundi eta Udaletan garatuko den laguntzak adostea ere eskatzen zaio Diputazioari.

## EAJ: “Aldundiak ez du laguntza hau ezabatzeko asmorik”

Testua EHBildu eta PSE-ko udal ordezkarien aldeko bozkekin onartu zen. Aurka agertu zen EAJ-PNV. Josune Urkola bozeramailearen esanetan, Aldundiak ez du laguntza hau ezabatzeko asmorik, aldatzekoa baizik, egungo laguntzak “gizarteratzeko helburua ez baitu betetzen”. Aldundia proiektu berri bat lantzen ari dela aipatu zuen Urkolak. Baina gobernu taldetik ez dutela halako asmoen berririk zioten. Orain arte zegoen laguntza kenduko dela iragartzeak segurtasun gabezia eragiten duela eta “gauzak egin diren moduan, protesta egitea eskatzen du” zioen alkateak.

## Aldaketak Arau Subsidiarioetan

Apirilaren 26an egin zen osoko ohiko bilkuran, hirigintza alorreko bi erabaki ere hartu zituen udalbatzak. Batetik, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren Araudiko Aldaketa Puntualaren (01 Aldaketa) dokumentu osatua aho batez onartu zuten udal ordezkariek. Ez da gaurko kontua, gobernu taldetik aditzera eman zutenez. Tramitazio amaieran da gaia. Behin betiko onartu aurretik ordea, Gipuzkoako Foru Aldunditik araudian forma aldaketa batzuk egiteko eskaera jaso zuen Udalak.

## Txagañeta

Aginagako lur eremu honek jabe ezberdinak ditu. Eremua erabilera ezberdinetara bideratzeko nahia agertu izan dute; batzuk landa erabilpenerako baliatzea nahiago izan dute, besteek industria erabilerarako. Jabeen arteko desadostasunaren aurrean, Udalak erdibideko erabakia hartu zuen. Zati bat landa eremurako utzi eta bestea industria erabilerara bidera–tzea. Orain, Arau Subsidiarioetako S-4 edo Txagañeta Sektoreko Ezaugarri Fitxaren Aldaketa Puntuala behin betiko onartzeko dokumentu osatua onartu du udalbatzak gehiengo osoz, apirilaren 26ko osoko bilkuran, EHBildu eta PSE-ren aldeko bozkekin. EAJ abstenitu zen.









# Udalbatza osoa, Lurraldebuseko murrizketen aurka

Gipuzkoako Foru Aldundiak T2 eta T6 autobus zerbitzuak, hau da, hurrenez hurren Usurbil ospitaleekin eta Hernanirekin lotzen dituen zerbitzuak murriztu asmo ditu. Murrizketon aurka agertu zen udalbatza osoa, aurreko asteko osoko ohiko bilkuran. Udal talde guztiek bat egin zuten, EHBilduk gai honi buruz aurkezturiko mozioarekin. Bi puntuko testuan, "onura soziala eta herritarren beharrak etekin ekonomikoaren gainetik jartzea" eskatzen dio Udalak Aldundiari, "eta ez dezala murrizketarik egin Lurraldebuseko T2 eta T6 zerbitzuetan". Honez gain, "zerbitzuen arrazionalizazioa egin behar izanez gero, herritarren parte-hartzearekin egitea" galdegiten diote.




**Foru Aldundiak T2 eta T6 autobus zerbitzuak, hau da, Usurbil ospitaleekin eta Hernanirekin lotzen dituen autobus zerbitzuak murrizteko asmo du.**

## Zerbitzuak murrizteko joera Aldunditik

Ospitaleetatik Aginagaraino autobus zerbitzu bat izatea hainbeste kostatu ondoren, "orain murrizketak izatea, ez dugu egoki ikusten" zioen Jone Urdanpilleta zinegotziak aipatu osoko bilkuran. Udalak, Lurraldebus enpresak eta sindikatuek gai honekiko kezka agertu dutela. "Gaia aztertzen ari dira", berri eman zuen Urdanpilletak. Antza, Aldundia Lurraldebusekin hartuemanetan da.

*AHOBATEZ ONARTUA*

***"Zerbitzuen arrazionalizazioa egin behar izanez gero, herritarren parte hartzearekin egitea eskatzen du Udalak"***

T2 eta T6 zerbitzuetan Aldundiak aplikatu asmo dituen murrizketak ez dira bakarrak. Esaterako, Astigarraga ospitaleekin lotzen duten zerbitzua ere kendu egin zuen Aldundiak. Otsailean Amarako autobus geltokia lekuz aldatu zutenean, Usurbil Donostiarekin lotzen zuen autobus zerbitzuko geltokia ere ezabatu zuten.

## Etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubidearen alde

"Etxebizitza bat eskuratzeko behar diren baliabide ekonomikoak ez dituzten pertsonei, etxebizitza duin eta egokia modu egonkorrean legez okupatzeko eskubidea bermatzea, eta bestela, prestazio ekonomikoak eskaintzea" galdegiten dio Usurbilgo Udaleko udalbatzak Eusko Jaurlaritzari. Bi puntuko testuan gainera, "prestazio ekonomikoko modalitatean etxebizitza duinerako eskubide subjektiboa betetzeari dagokionez, inolako murrizketarik eragin ez dezatela, ez baldintzetan ezta zenbatekoetan ere, Etxebizitzaren Prestazio Osagarrirako gaur egun araututa dagoenaren inguruan; eta edozein kasutan, hura garatuko duen Dekretua, Etxebizitzaren Lege berriaren zentzuaren eta literaltasunaren arabera zabaldu dadin eskatzen dio".

PSE-k aurkezturiko mozioaren alde bozkatu zuen EH-Bilduk. EAJ abstenitu zen.

# Migratzaileak Turkiara kanporatzearen aurka

Gaurkotasun handiko gaia ekarri zuen Usurbilgo PSE-k, apirilaren 26ko ohiko bilkurara. Europara heldutako migranteak Turkiara itzularazteko, Europar Batasunak eta Turkiak erdietsitako akordioa. Akordio honen aurkako mozioa aurkeztu zuen Fermin Orue-Echevarriak, apirilaren 26ko plenoan. Aho batez onartu zuen udalbatzak. "Pertsona errefuxiatuek bizi duten egoera larriaren aurrean, giza eskubideak eta asiloko nazioarteko eskubidea errespetatuko duen premiazko erantzun humanitarioa emateko eskatzen die Udalbatzak Europar Batasunari eta Estatu kideei", dio testuak. Eta eskubideon aurkako edozein akordio, itun edo hitzarmen erretiratzea eskatzen dute. Mozio hau onartuta, udalbatzak bat egin du "Europa osoko erakunde sozial, sindikatu eta alderdi politiko askok sinatutako "Pasabide Segurua" adierazpenarekin. Eta horren ildotik, pasabide humanitarioak sortzeko agindu dezaten, eta errespetuan oinarrituz, pertsona horiei Europar Batasuneko 28 Estatu kideen artean asiloa eman diezaieten eskatzen die Europar Batasunari eta bere Estatu kideei".









# Oria behea, guztiz saneatua egotetik gertuago

Denbora beharko da, baina pixkanaka Zubieta, Usurbil eta Aginaga zeharkatzen duen errioaren egoerak hobera nola egiten duen ikusteko moduan izango gara. Ia bi hilabete badira jada, udalerri honetako ur zikin gehienak, ez guztiak, erriora isurtzeari utzi genionetik. Orain arte, sortzen genituen ur zikinok Orian amaitzen baitzuten. Aipatu moduan ordea, errealitatea aldatu da, hobera noski, duela urte askotatik landuta zegoen proiektua gauzatu baita neurri handi batean.



Apirilaren 29an egin zen Zubietako kolektore berriaren inaugurazioa.

Ur zikinak saneatzeko azpiegitura sarea martxan da. Egun, Usurbil inguruan sortzen ditugun ur zikin gehienak, eraiki eta martxan den kolektoreari esker, Loiolako araztegira doaz. Han tratatu ostean, gero itsasoratzeko.

Urte luzeetako lanak amaitu berritan, ostiralean egin zen inaugurazio ekitaldia, Zubietako hondakinen ponpalekuan. Erakunde ezberdinetako ordezkariak bildu zituen hitzorduak; tartean Usurbilgo Udaleko eta Zubietako Herri Batzarreko ordezkaritza bat. Baita Añarbe Mankomunitateko, Ingurumen Ministerioko Kantauriko Konfederazio Hidrografikoko kideak edota Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkaria ere gerturatu zen Zubietara. Saneamenduko azpiegiturak entregatu zizkion Konfederazioak Añarbeko Mankomunitateari.

## Osinaldetik Zubietara

Kolektoreak garraiaturiko Usurbil eta Lasarte-Oriako ur zikinak Hipodromo ondoan dagoen eraikin honetan biltzen dira. Hortik, Hernaniko Florida auzoko Urumeako Kolektorera doaz, eta handik Loiolako araztegira doaz ur zikinak. "Saneamendu-sistema berria 16 kilometroko luzeera duten kolektoreek, lau ponpalekuk eta bost ekaitz-tangek osatzen dute", berri eman dute.

*ORAINDIK BADA ZEREGINA*

***"Zubietako ur zikinak saneamendu sarearekin bat egiteko lanak esleitu ditu Añarbeko Mankomunitateak. Obren gauzatze-epea hiru hilabete eta erdikoa izango da"***

Usurbilgo ur zikinak Oriatik desbideratzeko hiru ponpaleku jarri dira; lehenengoa Osinalde industriagunean, "bertara Santuenean auzoko urak eta hiriguneko kolektore unitariokoak iristen dira; ur horiek guztiak Osinaldeko ponpalekuan biltzen dira. Honek Atallu industriagunera garraiatzen ditu eta hemendik, Ugaldea industriaguneko urekin batera, Atalluko ponpalekura iristen dira. Atalluko ponpalekuak Txikierdirantz ponpatzen ditu urak-bertara Michelin enpresako isurketak iristen dira- eta ondoren, ibaiaren ezkerraldetik, Hipodromoko zubi ondoko Zubietako ponpalekuraino iristen dira". Zubietako ponpalekuak segundu bakoitzeko 500 litroko emaria bultzatzeko gaitasuna duten bi ponpa ditu.

Aipatu dugun moduan, ur zikin gehienak jada Oriatik desbideratu diren arren, zenbait eremuetan oraindik ez da desbideratze hori eman. Aginaga eta Txokoalde inguruan esaterako, baita Zubietan ere. Zubietako ur zikinak saneamendu sarearekin bat egiteko lanak esleitu ditu Añarbeko Mankomunitateak. 340.000 euroko aurrekontua dute lanok. "Hondakin-uren ponpaleku berri bat (Aizpuruan) eta dagokion bultzada-ubidea egingo dira, enklabeko hondakin-urak goi-saneamenduko sistema berri honekin lotzeko. Obren gauzatze-epea hiru hilabete eta erdikoa da", berri eman dute.

## 2009an hasi zituzten lanak

- Kolektorearen luzeera: 16 kilometro.
- Bidean, 4 ponpaleku eta bost ekaitz-tanga.
- Lanen eremua: Oriako bi ertzeetan, Usurbilen, Zubietan eta Lasarte-Orian; edota Hernaniko Sorgintxulo, Antziola eta Florida auzoetan.
- Lanen inbertsioa: 29.041.637 euro.
- Lanok finantzatu dituena: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.
- Lanak gauzatu dituena: Dragados S.A. eta Construcciones Moyua S.L. enpresek osaturiko aldi baterako enpresen batasuna.
- Proiektuaren idazketa eta lurzoruaren kudeaketa: Añarbeko Mankomunitatea.
- Lanen hasiera: 2009ko azaroaren 20an.



30 milioi euroko inbertsioa egin da.

LASARTE-USURBIL INSTITUTUA

IES BHI LASARTE • USURBIL

Zure au-era

- D.B.H.
- BATXILERRA



AURREMATRIKULAZIOA
maiatzaren 2tik 12ra

lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277

www.instilasarte.net

# 4. SAGASTIAK LORETAN OSPAKIZUNA

SAGARRONDOEN LORALDIAREN GORAZARRE EKIMENA **USURBILEN**

## Maiatzak 15, igandea

SAN ISIDRO EGUNA

**10:00 "Udaberria: Sagastiak loretan eta txoriak kantuan"** Mikel Olanoren (txorietan aditua) emanaldia Saizar Sagardotegian.
Ondoren, taldea Anaerrekara txorien kantuak entzutera.
**10:30** Pilota partidak (Usurbilgo lehen mailako txapelketako bi partida).
**11:00** Herriko ekoizleen Azoka irekiera trikitilariekin (Bertako produktuak salgai).
**12:00** Meza Salbatore Elizan.
**12:30** Hamaiketakoa bertsolarien harrerarekin.
**13:30** Bertso saioa: Amets Arzallus eta Elixabete Pagola.
**14:30** Bertso-bazkaria Saizar Sagardotegian. *(Txartelak salgai Alkartasuna Kooperatiban maiatzak 11ra arte - Prezioa: 30 €)*
**17:30** Herri kirolak: Emakume-gizon proba. Aizkora, trontza eta txinga lehiaketa.
**18:00** Kalejira erraldoi eta buruhandien konpartsarekin.

## Maiatzak 19, osteguna

POTXOENEAN

EUSKAL HERRIKO SAGARDOAREN IBILBIDE TURISTIKOAren aurkezpena. Potxonean 11:00etan.

## Maiatzak 22, igandea

XXXV. SAGARDO EGUNA

**10:30** "Sagardotegia, gure kolejiyua" kantatu zuen Udarregi bertsolariaren oroimenez Remigio Mendibururen eskultura jarri zela 50 urte gogoratzeko ekitaldia.
**11:00** Potxoenea atarian duela 20 urte egindako Noaua!ko bazkideen argazkia berrituko dugu.
**11:30** Sagardo Egunaren irekiera Noaua!ren eskutik.
**18:00-21:00** Elektropatxaranga.

## Ekainak 4, larunbata

POTXOENEAN

"Sagarrondotik Sagardora" ikastaroan: Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak. Aitor Etxeandiaren eskutik. Potxoenea Kultur Etxean. 09:00 – 13:00. Alkartasuna Kooperatiban izena eman behar da: +34.943.361114 eta alkartasuna@usurbil.com

**ELKARLANEAN:** Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak, Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba, Noaua! Kultur Elkartea, Usurbilgo Sagastia E.M., Sagardoaren Unibertsitatea, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea, Bizi Sagardoa, Usurbilgo Udala.

# Erraustegiaren aurka, bat eginda aritzeko deia

Pil-pilean dago Gipuzkoako hondakinen kudeaketaren gaia, Foru Aldundiak errauste-planta proiektua berpiztu eta eraikitzeko asmoa agertu zuenetik. Herritarren artean kezka eragiten ari den gai honi loturiko azken berrietako bat, aurreko astean egin zen osoko ohiko bilkuran izan genuen. EHBilduk erraustegiari buruzko mozioa aurkeztu zuen, udal ordezkariek eztabaidatu eta bozka zezaten. Bi puntu zituen testuak; batetik, Zubietan eraiki asmo duten erraustegia bertan behera uztea eskatzen zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari. Eta bigarrenik, alkateari Gipuzkoako gainerako udalei estutitz bana helaraztea, "non usurbildarron kezka eta beldurra adieraziko zaien, eta usurbildarronganako konpromisozko eta elkartasunezko jarrera eskatuko zaien".

Mozioak ez zuen aho bateko babesa izan. Aurkako bozkarik ez zen izan, baina EHBilduren babesarekin soilik onartu zen. PSE eta EAJ udal taldeetako ordezkariek abstenitzea erabaki zuten. Lehenago, adierazpenen tartean, aurretik gai honi buruz eginiko batzordean luze eta zabal hitz egin zutela esatera mugatu zen EAJ. Ildo beretik mintzatu zen PSE ere. Fermin Orue-Echevarriak gainera, lehenbizi erraustegiari buruz iragarria dagoen herri galdeketa egin eta galdeketa horretako emaitzen arabera, gero Udalak hartu ditzala proiektu honekiko hartu beharreko erabakiak, horixe proposatu zuen.

Gobernu taldetik gogorarazi zitzaion, erraustegia eraikitzeko lanak esleitzear dituztela, "egutegia gainera datorkigu" zioen alkateak. Eta honenbestez, "zerbait egitekotan orain da unea" zioen Xabier Arregik.



**EHBilduren mozioak ez zuen aurkako bozkarik jaso, baina oposizioak abstentziora jo zuen.**

> ALKATEA, PLENOAN
>
> ***"Erraustegia eraikitzeko lanak esleitzear dituzten honetan, zerbait egitekotan orain dela unea gogorarazi zuen plenoan"***

Horrekin batera, bi gonbita luzatu zizkien EHBilduk oposizioko bi alderdiei; batetik, gai honetan "elkarrekin joatea", etxe ondoan eraiki nahi diguten proiektuari udalerri bezala bat eginda erantzutea. Adierazi zuenez, erraustegiaren aurka egoteko "arrazoi asko dago". Hasteko, "ez da beharrezkoa" zioen alkateak, Gipuzkoako hainbat udalerrik erakutsi duten moduan. Beste hiru argudio nagusi ere aipatu zituen. Batetik, azpiegitura arriskutsua dela eta "kalte nabarmena eragingo diola herritarren osasun eta ingurugiroari".

Gogora ekarri zituen, Anbereseko erraustegian izandako leherketa edota Valdemingomezeko erraustegi inguruan bizi eta gaixo dagoen herritar talde batek azpiegitura honetako kudeatzaileen aurka aurkezturiko salaketa. Madrilgo epaitegi batek tramitera onartu duena.

## OEIT-rekin biltzeko gonbita

Erraustegia bera bakarrik ez, egitasmo hau finantzatzeko modua ere toxikoa dela nabarmendu zuen alkateak. Erraustegia martxan egon dadin, "35 urtez gure sosen bidez enpresa pribatuak finantzatzera behartzen gaitu". Erraustegiaren eraikuntza lanak eta kudeaketa esku pribatuetan utziko da. Gainera, Usurbilek "sortzen dituen hondakinetatik apenas erraustekorik ez eta halare azpiegitura ordaindu behar" zioen alkateak.

Atzerapausoa suposatuko du Gipuzkoako hainbat udalerrietan, Usurbildik hasita, jorratzen ari diren zero zabor bidean. Europako zuzentarauek eremu honetan etorkizunari begira diotena ere gogora ekarri zuen Arregik. Hondakinak birziklatzea lehenetsi eta erraustea debekatzen duten zuzentarauak hain zuzen.

Erraustegiak gaixotasunak areagotzen dituen ebidentziak aurkitu ditu Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak (OEIT). "Ikerlaririk ez da ausartu datuok ukatzera", zioen alkateak. Edozein zalantza edo kezka izanez gero, OEIT eragile eta erakundeekin biltzen ari denez (tartean, Donostia eta Lasarteko udal ordezkariekin bildu da egunotan), haiekin biltzea proposatu zion gobernu taldeak oposizioko taldeei.

**Herri galdeketa, Madrilgo baimenaren zain**

Martxoa hasieran bidali zuten galdeketa antolatzea eskatzeko baimena Madrilera, baina momentuz Udalak ez du inongo erantzunik jaso.

# San Marko Mankomunitateko aurrekontuak, auzitara hirugarrenez

Hirugarren urtez jarraian, San Marko Mankomunitateak onarturiko aurrekontuak auzitara eramango ditu Usurbilgo Udalak. Zergatia; aurreko bi urteetan bezala, baliatzen ez dituen zerbitzu eta azpiegiturengatik gainkostu bat ordaintzera behartu nahi baitu San Markok Udala. "Bidegabea da", zioen Xabier Arregi alkateak, apirilaren 26an egin zen osoko ohiko bilkuran.

Zilegi iruditzen zaio gobernu taldeari, erabilitako Mankomunitateko zerbitzu eta azpiegiturengatik diru ekarpena eginaraztea Udalari, baina edukiontzien sistema duten udalerriek bilketarako baliaturikoak ordainaraztea ez. Gogoan izan, Donostia, Errenteria, Pasaia, Oiartzun, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta eta Hernani udalerriek osatzen dute Mankomunitatea. Hondakinen kudeaketa eredu ezberdinak ditu indarrean; udalerri batzuetan atez atekoa, besteetan edukiontzien sistema.

## EAJ negoziazioaren bidea jorratzearen alde

Aurreko osoko bilkuran, gaia auzitegietara eraman eta Udala auzitegietan ordezkatuko duten abokatu eta prokuradoreak izendatu ziren. Proposamena gehiengo osoz onartu zen EH-Bildu, eta baita, PSE-ko udal ordezkariaren aldeko bozkekin. Aurka bozkatu zuen EAJ udal taldeak. Jeltzaleek hain zuzen, auzitegietara jo aurretik negoziazioaren bidea jorratzen segitzeko eskaera luzatu zioten gobernu taldeari, politikarien lana arazoak konpontzea dela adieraziz. San Marko Mankomunitateak Usurbilgo udalerria ordainaraztera behartu nahi duen gainkostua ez zaiela egoki iruditzen gaineratu zuten.



**Kontua ez da berria. San Marko Mankomunitateak eskaini ez dizkien zerbitzuengatik ordaintzera behartu dituztela salatu zuten Usurbil, Hernani eta Oiartzungo alkateek iragan otsailean.**

> XABIER ARREGI
>
> ***Udala ez da halako erabaki bat hartu beharrean aurkitzen den lehen aldia. 2014ko aurrekontuak ere auzitara eraman zituen. "Bizkaiko Auzitegiak arrazoia eman zigun"***

## "Ezinbestean eman beharreko pausoa da"

Gobernu taldetik ordea, San Markoko ordezkariek jarrera malguagoa erakustea espero zutela adierazi zuen alkateak. "Bileretan ez dugu sumatu" ordea. Auzibidera jotzea "ezinbestean eman beharreko pausoa" dela gaineratu zuen Arregik.

## Epaia, Udalaren alde

Aipatu moduan, Udala ez da halako erabaki bat hartu beharrean aurkitzen den lehen aldia. 2014ko aurrekontuak ere auzitara eraman baitzituen. "Bizkaiko Auzitegiak arrazoia eman zigun". Ez bakarrik Usurbilgo Udalari, baita salaketa bera egin zuten Mankomunitateko beste zenbait udalei ere. Baina bestelako hondakinen kudeaketa eredua sustatzen ari diren Mankomunitate bereko udalak eta San Markok berak epai hura errekurritu ostean, alkateak azken osoko bilkuran berri eman zuenez, "Auzitegi Gorenaren erabakiaren zain" dira orain. Edozein kasutan, gaurkoz kaleratua dagoen epai bakarra "gure alde" dagoela gogorarazi zuten gobernu taldetik.

## Erraustegiaren aurkako agenda

**Maiatzak 7, larunbata**

■ 12:00 GuraSOS taldearen aurkezpena, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean.

■ 12:00 Rossano Ercolini, Zero Waste Europe lehendakariaren hitzaldia Hernaniko Biteri kultur etxean: "Ez erraustu etorkizuna. Zero Zabor da bidea".

**Maiatzak 21, larunbata**

■ Maiatzaren 20tik 22ra, proiektu suntsitzaileen (tartean erraustegiaren) aurkako Txirrinka bizikleta martxa gure artetik igaroko da. Informazio gehiago: http://ahttxirrinka2016.blogspot.com.es Antolatzailea: AHT Gelditu! Elkarlana eta hainbat eragile sozial eta sindikal.

**Maiatzak 29, igandea, giza-katea Donostian**

■ 11:30 Osasunaren aldeko eta erraustegiaren aurkako giza-katea Donostian, Onkologikoan hasi eta Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza pareraino.

■ Luzeera: 5 kilometro inguru.

■ Gutxieneko beharrezko parte hartzea: 5.000 lagun. Gutxienez, 400 usurbildar.

■ Zehaztasunak: "musika, emozioa eta sorpresak" iragarri dituzte.

■ 13:00 Ekitaldia Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza aurrean, Donostiako Gipuzkoa plazan.

■ Antolatzailea: Erraustegiaren Aurkako Mugimendua.

## Jaurlaritzaren ingurumen baimena du erraustegiak

Zubietako erraustegia eraikitzeko Ingurumen Baimen Bateratua eta Ingurumen Eraginaren Deklarazioa baditu jada Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK). Baimenok Eusko Jaurlaritzak eman dizkio. GHK-k aurkezturiko 2010eko baimenari eman dio baiezkoa Jaurlaritzak, egitasmo berriak ez duela aldaketa esanguratsurik irizten baitio. Ebazpena apirilaren 11koa da, eta zabalik dago helegiteak aurkezteko epea. Albistea ez zen bide ofizialetatik jakin, Berria egunkariak eman zuen ezagutzera. Gogoan izan, Aldundiak udaberri honetan bertan esleitu asmo ditu erraustegia eraikitzeko lanak.





Klik! batean

# Andatza Eguna

Nork antolatuko duenik ez du. Iragarri ere, apenas egiten da. Pentsa, guri ere agendan aipatzea ahaztu. Hori gutxi balitz, lehia estua zuen aurten: Langileen Eguna, Amaren Eguna... Dena den, oraindik badira maiatzaren lehen igandearekin batera ohitura berritzen duten herritarrak.

Argazkia: Ion Markel

# Zumarteko ikasleak, Emusik 2016 jaialdian

Aurten, Donostia 2016k bere gain hartu du Musika Eskolen Europako Jaialdiaren antolaketa. Maiatzaren 4tik 7ra, Europako milaka musika-ikasle batuko dira Donostian. Inaugurazio ekitaldia ostiral honetan egingo da, Illunben, eta bertan Zumarte Musika Eskolako abesbatzak, saxofoi eta eskusoinuko 60 ikaslek hartuko dute parte.



Iaz, Emusik 2016 jaialdiaren aurre estreinaldian ere izan ziren Zumartekoak.

Aurtengoa, Emusik 2016 jaialdiaren hamabigarren edizioa izango da. DSS2016EUk eta Donostiako Musika eta Dantza Eskola ari dira antolaketa lanetan, Euskadiko, Nafarroako eta Estatuko musika eskolen elkarteekin batera.

Inaugurazio ofiziala ostiral honetan egingo da, maiatzak 6, Donostia Arena 2016 espazioan, Illunben. Zumarte Musika Eskolatik aditzera eman digutenez, "hemengo zein atzerriko 8.500 musika-ikasleentzako topaketa honetan, musika eta dantza batuko dira errepertorio anitz batean, besteak beste, *Donostiako martxa*, *Txanton piperri*, Europako ereserkia eta EMUSIKerako espresuki konposatutako abesti bat: *Musikatu bizitza*". Zumarte Musika Eskolako abesbatzak, saxofoi eta eskusoinuko 60 ikaslek inaugurazio ekitaldi honetan hartuko dute parte.

**ZUMARTE MUSIKA ESKOLA**

***"Aukera paregabea izango dugu kultura eta herrialde desberdinetako ezagutzak eta esperientziak partekatzeko"***

'Musika batzen gaituen hizkuntza komuna' premisatzat hartuta, "aukera paregabea izango dugu kultura eta herrialde desberdinetako ezagutzak eta esperientziak partekatzeko eta Europako herri desberdinen arteko hurreratzea eta hartu-emana bultzatzeko", Zumartetik aditzera eman digutenez.

## Musika eskolen lana

Horrez gain, festa eta musika-ospakizunaz aparte, "festibalak ikusgarritasun handiagoa eman nahi dio musika eskolek maila guztietan (tokikoak, nazionalak, europarrak) egiten duten lan nekaezinari".

Ostiral honetako festa Illunben hasiko da eta Saguesen amaituko da festa handi batekin.

# Ostirala, Udajolasen izena emateko azken eguna

Maiatzaren 6ra arte, 10:00-11:00 artean, eta 16:00-18:00 artean eman ahalko da izena Udajolasen, NOAUA!ko egoitzan. Izen ematerakoan, inskripzio orria beteta, ordainketa egin izanaren ordainagiria eta aurten, Gizarte Segurantzaren txartelaren kopia ere aurkeztu behar dira.



4-12 urte arteko 200 gaztetxorentzat lekua dago Udajolasen.

4-12 urte arteko 200 haur eta gaztetxorentzako lekua dago Udajolasen. Izen emate kopuruak plaza kopurua gaindituko balu, zozketa egingo da. Bestela, automatikoki izena emanda dauden guztiak onartuak izango dira. Ostiral arratsaldeko 18:00etan izen ematea itxi ondoren, noaua.eus web orrialde bidez eta NOAUA!ko egoitza atarian jarriko dugun oharrean jakinaraziko dugu, zozketarik izango den edo ez.

## Matrikulazio garaia, Zubietako udako txokoetan

Apirilaren 30a baino lehen aurre izen ematea bideratu zutenek, maiatzaren 20rako arteko tartea dute orain, matrikula orria bete eta kuota ordaintzeko.

**Epez kanpo ordaintzen duenak ez du tokia ziurtatuta izango**

Izen emateko idatzi zubietatxoko@gmail.com helbidera edo bestela, Zubietako Eskolan eskura ditzakezue inskripzio orriak. "Epez-kanpo izen emateen duenak ez du tokia ziurtaturik izango. Izen eman gabeko edo matrikula ordaindu gabeko haurrak ez dira onartuko", ohartarazi dute antolatzaileek.

# Larunbatean, ate irekien eguna Lanbide Eskolan

Guztira hiru jardunaldi antolatu ditu Lanbide Eskolak. Bertako instalakuntzak eta hezkuntza proiektua ezagutzeko aukera izango da datozen bi larunbatetan, maiatzaren 7an eta 14an 11:00-13:00 artean eta maiatzaren 11n, 18:00-20:00 artean. Aurrematrikulazio epea, ekainaren 6tik 17ra izango da.

Informazio gehiago:
943 364 600 / lhusurbil.eus
eskola@lhusurbil.eus


**Urte hasieran amaitu zuten zuraz eginiko eraikinaren obra. Ordukoa da argazkia. Maiatzaren 20an modulu berri baten inaugurazioa egingo dute bertan.**

## Modulu berriaren inaugurazioa

Maiatzaren 20an ostirala, *Kontsumo baxuko modulu berriztagarriaren* inaugurazioa egingo dute Lanbide Eskolan. Jardunaldi bat iragarri dute egun horretarako, eta besteak beste, zuraz aurrefabrikatutako eraikuntza berriaz arituko dira.

# GuraSOS taldearen aurkezpena egingo da larunbat honetan

Erraustegiaren eraginaren kezkak batzen duen guraso mugimendua aurkeztuko dute larunbat honetan, maiatzaren 7an, eguerdiko 12:00etan Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean; GuraSOS. "Zubietan egitekoak diren erraustegiak gure osasunean, eta bereziki gure umeengan, izango duen eraginengatik kezkatutako guraso talde bat gara", jakitera eman dute. Mugimendua zer den, zer nahi duten eta zer egingo duten ezagutzera emango dute larunbateko hitzorduan. "Interes politiko eta ekonomikoen gainetik, gure seme-alaben osasuna babestu nahi dugu". Bi lan ildo dituzte; batetik, "adituen informazioa jaso eta beste gurasoekin partekatzea". Bestetik, "osasuna guztiz bermatuta ez dagoelako, eta prebentzio printzipioan oinarriturik, erraustegiari ez esaten diogu".


**"Interes politiko eta ekonomikoen gainetik, gure seme-alaben osasuna babestu nahi dugu" (Argazkia: Xingola).**

# Anorexia eta bulimiari buruzko hitzaldia

Senda daitezkeen gaixotasunak dira. Bere onera itzultzeko bidea luzea da, beraz, beharrezkoa da espezializatutako profesionalen eta ingurumen sozial eta familiarraren laguntza, eta bere onera itzultzeko prozesua errazagoa izateko ezinbestekoa da senitartekoei laguntza eta aholkuak ematea.

**Hitzaldia, Udarregin**

- Maiatzak 18 asteazkena.
- 18:00etan, Udarregiko eraikin gorrian.
- Gaia: Elikadura jokaeren nahasteak. Anorexia eta bulimia. Gizarte gaixotasunak. ACABE elkarteak azalduko du.
- Gurasoei zuzendua.
- Antolatzailea: Hitz-Aho.

## Santueneko Gure Elkarteko tabernaren irekiera

Usurbilgo Udalaren esleipen deialdia gauzatuta, maiatzaren 10ean 19:00etan irekiko dute berriz Santueneko Gure Elkartea jubilatuen bilguneko taberna berritua. Euskal giroan inauguratuko dute; Kantu Taldekoak espero dituzte, baita akordeoijolea ere. Bertako produktuak dastatu ahalko dira. Herritarrei bertaratzeko gonbita luzatzen diete.

## NOAUA!ren zozketan saritua

NOAUA! Kultur Elkartean sariak banatzen jarraitzen dugu, egitasmo honek aurrera egiteko, urteotan lagundu duzuen bazkideon artean. Oraingoan, apirilaren 29an proiektatuko zuten "Berri ona" filma ikusteko bi sarrera zozketatu genituen. Koro Labaka izan zen saritua. Zorionak!


**'Berri ona' filma ikusteko bi sarrera egokitu zitzaizkion Koro Labakari.**

## Hurbilagoren apirileko zozketa

Hurbilago Elkarteak eginiko bizikleta eta telebistaren zozketan, honako hauek izan dira zenbaki saorituak:

- Bizikleta: 27.562 (maiatzaren 22ra arte). Ordezko zenbaki saritua (maiatzaren 23tik ekainaren 12ra): 19.680.
- Telebista: 6.525 (maiatzaren 22ra arte). Ordezko zenbakia (maiatzaren 23tik ekainaren 12ra): 23.190.

# ‘Heroiak’, komedia kutsuko antzezlana

## RAMON AGIRRE, KANDIDO URANGA ETA JOSE RAMON SOROIZ AKTOREEN ESKUTIK

Zahartzaroari eta zaharren arteko ika-mikei buruzko komedia bat da *Heroiak*. Ramon Agirreren esanetan, Txalo taldearen obra hau “ez da komedia bat barrez lehertzekoa, irribarrez ikusteko komedia bat da, komedia samur bat”.

II. Mundu Gerrako beteranoentzako egoitza batean bizi diren hiru gerlari ohi dira protagonistak: Rene herrena da (Kandido Uranga), Gustavek agorafobia du (Ramon Agirre), eta Fernandek zorabioak izaten ditu, buruan duen metraila puska baten eraginez (Jose Ramon Soroiz).

Bizitzaren joanari begira dauden hiru agure dira. Gerald Sibleyras antzerkigile frantziarrarena da jatorrizko bertsioa. Ramon Agirrek berak egin du itzulpena eta Begoña Bilbao Lejarzegi aritu da zuzendari lanetan.



**Ramon Agirre, Jose Ramon Soroiz eta Kandido Uranga aktoreak, obraren une jakin batean. Ostiral honetan Sutegin izango dira, gaueko 22:00etan.**

RAMON AGIRRE

***“Bere harrikada partikularra du bakoitzak. Harrikada edo pitzadura edo...”***

Ramon Agirreren esanetan, “bere harrikada partikularra du bakoitzak. Harrikada edo pitzadura edo...”. Eta harrikada eta pitzadura horien ondorioz sortzen da publikoaren irribarrea.

### “Heroiak” antzezlana

- Maiatzak 6 ostirala.
- Ordua: 22:00.
- Tokia: Sutegiko auditorioa.
- Txalo taldea.
- Aktoreak: Ramon Agirre, Kandido Uranga eta Jose Ramon Soroiz.
- Zuzendaria: Begoña Bilbao.
- Sarrerak: Lizardin 8 euro aldez aurretik, 10 euro egun berean (lehiatilan).
- Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkartea.



# Astelehenean egin ziren Ander Aranburuen aldeko hileta-elizkizunak

Legazpiko jaietan gertatu zen ezbeharra, larunbatean goizaldeko 02:30ean. Ander Aranburu Leunda 46 urteko usurbildarra Legazpiko eliz inguruetan aurkitu zuten, larriki zauritua. Antza, erasotzaileek indarkeria baliatu zuten Ander Aranbururi lapurreta egiteko garaian. Suspertzen ahalegindu ziren, baina bere egoera larria ikusita, Donostia Ospitalera eraman zuten. Zaurion ondorioz ordea, larunbat arratsaldean hil zen Ander Aranburu. Azken hamar urteak Legazpin egin zituen.


Legazpin bizi zen aspaldian.

Gertaeraren berri izan zutenetik, abian da gertaturikoa argitzeko ikerketa. Jasotako lekukotzekin, 19 eta 30 urteko bi pertsona atxilotu zituen Ertzaintzak. Antza, atxilotuetako batek zaurituaren dokumentazioa eta kreditu txartela omen zituen. Indarkeriaz lapurreta egitea egotzi zitzaien. Igande goizean aske utzi zituzten arren, igande iluntzean epailearen aginduz berriz atxilotu eta Martuteneko espetxera eraman zituzten.

## Jaiak, bertan behera

Gertaera latz honen ondorioz, Legazpiko jaiak bertan behera utzi zituzten igandean. Udalak batetik hildakoren senideei elkartasuna adierazi die eta edozein motatako indarkeria gaitzetsi.

## Hileta, Usurbilen

Astelehenean egin ziren, Ander Aranbururen aldeko hileta elizkizunak Usurbilen.

# Kontserbak, Errigoraren eskutik




Otarrak izan genituen udazkenean, oliba olioa neguan, eta udaberri parte honetan, Nafarroa hegoaldean ekoitzitako kontserba-loteak eskuratzeko aukera izango da maiatzaren 12tik aurrera NOAUA!ko egoitzan. Abiatzear da Errigoraren kanpaina berria. Oraingoan zazpi produktu lote izango dituzue aukeran: barazki-menestra, zainzuriak, barazki-krema, orburuak, potxak, tomate frijitua eta pikillo piperrak. Informazio gehiago: errigora.eus

# Ainharben eta Arüen bi etxalde erosteko diru bilketa kanpaina

Lurzaindia elkarteak diru bilketa kanpaina hasi du "hiru baserritar gazterentzat bi etxalde erosteko, biak ere Zuberoan". Uda baino lehen 400.000 euro bildu behar dituzte. Nafartarrak taldeak sustatuko du kanpaina hau Usurbilen.

Nekazaritzako lurrak "espekulazioen atzaparretatik zaindu eta laborantzan hasi nahi duten gazteentzat erosten" saiatzen da Lurzaindia.

Zuk ere lagundu nahi baduzu, jarri harremanetan Nafartarrak taldekoekin edo bidali email bat erredakzioa@noaua.eus helbidera.

## 66ko kinto afaria

Larunbat hau baino lehen eman behar dute izena, aurten 50 urte beteko dituzten herritarrentzat antolatu duten kinto afarira joan nahi dutenek. 45 euroko ordainketa egin beharko da, kontu zenbaki honetan: ES41 2095 5069 0091 1591 6891.

Maiatzaren 14an bilduko dira Olarrondo jatetxean, 21:00etan. "Afalaurretik Bordatxon elkartuko gara 19:00etan".

## 71ko kinto afaria

Maiatzaren 14an bilduko dira bazkari baten bueltan, Saizarren. Lehenago, 12:00etan jarri dute elkartzeko hitzordua, Bordatxo tabernan. Izen emateko zerrenda Txiriboga tabernan jarriko dute. Maiatzaren 12a baino lehen apuntatu beharko da.

## Santixabel jaietako herri ikuskizunean partehartzeko aukera

16 urte baino gehiago izan eta jaietan abestu, antzeztu, bertsotan jardun, argazkiak proiektatu edota antzeko emanaldi labur bat eskaini baduzu ezin duzu aukera hau galdu. Maiatzaren 15a baino lehen eman izena "Urrutiko intxaurrak hamalau" herri ikuskizunean:
ixabel.agirresarobe@gmail.com
675 712 383

Eskaini nahi duzuen saioaren zehaztasunak eman. Emanaldian norbanako nahiz talde orok parte har dezake.









# Kirola eginez jolasteko aukera, Oiardoren udako eskaintzan

8-13 urte artekoek uztailean kirolaz gozatzeko eskaintza zabala aurkituko dute Kiroldegian antolatu dituzten txokoei esker. Denetariko jardueretan parte hartzeko aukera izango dute, bai Oiardon baita handik kanpo ere. Besteak beste txangoak egitekoak baitira. Beti ere, "eguraldiaren arabera egingo dira" ohartarazi dute antolatzaileek. Kasuotan, "autobusez egingo diren irteerak ez daude prezioen barne".



Kiroldegi barruan zein kanpoan, udarako prestatu duten eskaintza zabala da.

### Argibide gehiagorako:

- 943 372 498
- kirola@usurbil.eus
- buruntzaldea.eus
- Facebook: Oiardo Kiroldegia

### Aurreikusitako ekintzak

- Irteerak: mendi bizikleta, ibilaldiak (mendira, hondartzara...).
- Kirol alternatiboak: patinajea, boulderra (hastapen tailerra), badmington, hockey, freesbe.
- Jolasak: altxorraren bila, ginkana, globo jolasak...
- Igerilekuko ur jolasak: waterpolo, saltoak, koltxoneta lasterketak, zirkuituak...
- Kirol ekintza ezberdinak: herri kirolak (txingak, sokatira...), pilota (eskuz, raketaz, palaz).

### Txandak

- Hilabete osoa: uztailaren 4tik 29ra.
- Lehenengo txanda: uztailaren 4tik 15era.
- Bigarren txanda: uztailaren 18tik 29ra.
- Ordutegia: 10:00-13:00.

### Nori zuzendua:

8,9,10 eta 11, 12 eta 13 urtekoentzat.

### Abonuen kobraketa

Oiardo Kiroldegiko erabiltzaileentzako oharra. Usurbilgo Udaletik jakinarazi dutenez, "aurten hainbat aldaketa izan dira Kiroldegian, eta hori dela-eta, otsailean egin ohi den abonuen kobraketa, maiatzaren 5ean egingo da".

# Eskubaloiko senior neskek, Castro Urdialesen jokatuko dute Espainiako Sektorea

Usurbil Kirol Elkarteko senior neskek Euskadiko Txapelketa irabazi zuten eta zuzenean sailkatu dira sektore hau jokatzeko. Federazioak hala erabakita, Kantabrian, Castro Urdialesen lehiatuko dira senior neskak, maiatzaren 13tik 15era.



Datorren astean izango da. Aurkariak: Castro-Urdiales, Baztango BKT, La Jota.

### Espainiako Txapelketa:

- Jokatuko duten sektorea: "B".
- Noiz: maiatzak 13, 14, 15.
- Non: Castro Urdiales (Kantabria).
- Aurkariak: Castro-Urdiales (Kantabria), Baztango BKT (Nafarroa), A.D. La Jota (Aragoi).

### Neurketen egutegia:

- Maiatzak 13, ostirala

18:00 Castro-Urdiales-A.D. La Jota
20:00 Usurbil K.E.-Baztango BKT

- Maiatzak 14, larunbata

18:00 Castro-Urdiales-Baztango BKT
20:00 Usurbil K.E.-A.D. La Jota

- Maiatzak 15, igandea

10:30 Castro-Urdiales-Usurbil K.E.
12:30 A.D. La Jota-Baztango BKT

## Yoga eskaintza zabalagoa Oiardo Kiroldegian

Maiatzetik aurrera ostegunetan ere yoga saioak Oiardo Kiroldegian. Goizez, 09:00-10:30 artean eta arratsaldetan, 19:00-20:30 artean. Informazio gehiago: 943 372 498.

## Herri Urratsera, oinez edo autobusez

Seaskako ikastolen aldeko festa eguna izango dugu igande honetan, maiatzaren 8an; Herri Urrats Senpereko aintziraren bueltan, "Jalgi" aldarripean. Bildutako laguntza Bernat Etxepare Lizeoa eraikin berrira bideratuko da. Bertan Seaskako lehen sare profesionala ireki nahi dute. Leloa bera, Etxepareren hitzetatik hautatu dute: "Euskara, jalgi hadi plazara...". Egun osoko festa egitarau zabala prestatu dute iganderako. Informazio gehiago: herriurrats.eus

Senperera gerturatuko direnen artean ditugu Andatza M.K.T.-k antolaturiko asteburupasan parte hartuko duten mendizaleak. Larunbatean Kiroldegitik 08:30etan autobusez Ereñozura abiatu eta bertatik, oinez igandean Herri Urrats jaialdira heltzekoak dira. Izen ematea itxita dago. Informazio gehiago: andatzamendizale.info

## Udarregirekin ere, bus zerbitzua

Herri Urratsera joateko autobus zerbitzua antolatu du Udarregi Ikastolak. Maiatzaren 8an, goizeko 09:10ean irtengo da San Inazioko errotonda ondoan dagoen bus geltoki paretik. Itzulera 19:00etan izango da. Autobus zerbitzurako izena, aurrez eman beharko da, Udarregi Ikastolako idazkaritzan, Bordatxo edo Txirristra tabernetan.

# Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketako lehen aurkaria Bidania-Goiatz izango da




**Herri Arteko Txapelketan pilotari hauek hartuko dute parte: Peru Aranburu, Eneko Agirresarobe, Andoni Arzallus, Imanol Galarraga, Jon Zumeta, Alain Ramos, Aitor Aranguren, Xabier Errasti, Xabier Santxo eta Enrike Huizi.**

Usurbilgo Pilota Elkartea Gipuzkoako Herri Arteko txapelketara itzuli da. Gogo biziz gainera. Duela lau urte aritu baitzen azken aldiz Herri Artekoan. Hori bai, jubenilen faltan, kadete mailako jokalariekin arituko dira maila horretako partidan. Ostiral honetan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Usurbilgo frontoian. Bidania-Goiatz taldea izango da aurkaria.

Aurtengo txapelketan, guztira 25 talde arituko dira lehian. Gipuzkoako Herri Arteko lehen kanporaketan, Usurbilgo taldeari Bidania-Goiatzeko taldea egokitu zaio. Joaneko partidak ostiral honetan jokatuko dira, eta itzulerakoak astebete barru: maiatzaren 13an, Bidania-Goiatzen.

## Jubenilik gabe

Jubenil mailako jokalarien faltan, kadeteekin jokatu beharko du Usurbilgo taldeak. Halaxe azaldu digute pilota elkartetik: "Jubenil mailako pilotaririk ez dugunez, kadete mailako pilotariekin moldatuko gara. Beraz kadete mailako pilotariek jokatuko dute kadete zein jubenil mailako partidetan".

## Bederatzi pilotari

Hauek dira bederatzi pelotarien izen abizenak: Peru Aranburu, Eneko Agirresarobe, Andoni Arzallus, Imanol Galarraga, Jon Zumeta, Aitor Aranguren, Xabier Errasti, Xabier Santxo eta Enrike Huizi.

## Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa

- Usurbil-Bidania Goiatz.
- Maiatzak 6 ostirala, 19:30ean.
- Usurbilgo frontoian.

## Eskubaloi partidak Oiardo Kiroldegian

**Maiatzak 7, larunbata**

- 09:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5B-Udarregi 5C.
- 09:30 Alebin neskak, Buruntzaldea: Udarregi 6C-La Salle Berrozpe.
- 10:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 6B-La Salle Berrozpe.
- 11:30 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Aiala B ZKE.
- 12:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Hernani ET.
- 16:00 Jubenil neskak, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E.-Ereintza Aguaplast.
- 17:45 Kadete mutilak, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E.-Ereintza Aguaplast.
- 19:30 Jubenil mutilak, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E.-Leizaran Eskubaloia.

**Maiatzak 8, igandea**

- 09:30 Alebin mutilak, Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketa: Usurbil K.E.-Zarautz B ZKE
- 11:00 Jubenil mutilak, Gipuzkoako selekzioa: prestakuntza saiora Jokin Azpeitia deitu dute.

## Futbol partidak

**Maiatzak 7, larunbata**

- 09:30 Infantil neskak: Usurbil F.T.-Zarautz KE "B"
- 10:30 Infantil mutilak: Usurbil F.T.-Billabona K.E.
- 15:30 Preferente taldea: Usurbil F.T.-Lagun Onak C.D.
- 17:30 Jubenilak: Usurbil F.T.-Soraluze C.F.

**Maiatzak 8, igandea**

- 10:00-13:00 Futbol Eskola: Usurbil F.T.-Internacional C.D.

# Esker onez

Urrezko Tximeleta sarien lehen edizioa ospatu da aurten. "Kirol arloan egindako lan bikaina eskertuz hona hemen aurtengo sarituak: Iñaki Iurramendi Mendizabal eta Begoña Arriaga Intxausti. Mila esker bihotz bihotzez urte hauetan egindako lan bikainarengatik eta zuen aldetik jaso dugun tratu ezin hobearengatik".



**Iñaki Iurramendi Mendizabalek eta Begoña Arriaga Intxaustik Tximeleta taldeen eskutik oroigarri bana jaso zuten.**

## Usurbilgo 44. Pilota Txapelketa

**Maiatzak 7 larunbata, 11:00h**

Nagusiak Lehen Maila

Azketa -Atxa (Zegama)
Mitxelena-Mendi (Villabona)

Mazkiaran-Mina (Huarte)
Adonis-Aranguren (Amezketa)

**Maiatazak 8 igandea, 11:00h**

Nagusiak Lehen Maila

Baez-Garmendia (Lazkao)
Urmeneta-Aranburu (Errenteria)

Txurruka-Salegi (Zestoa)
Egiguren-Aizpuru (Andoain)

## Nordic walking ikastaroa Oiardon

Ibiltzeko eta kirola egiteko beste era bat. Bi makilen laguntzaz egiten da, "alfa" izeneko teknika erabiliz. Erritmoa du eta gorputzeko hainbat atal lantzen dira.

Maiatzaren 27an ostirala ikastaro bat egingo da Oiardon, 17:00etatik 20:00etara.

Prezioa: Bazkideentzat 15 euro. Bazkide ez direnentzat, 30. Makilak alokatzen dira.

Izen ematea, Oiardo kiroldegian. Tf: 943 372498.

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus
Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

## ETXEBIZITZA

### Salgai

BOE-ko 79m$^2$ etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela handi, 2 komun, saloi handia, sukaldea... Dena kanpokaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 60 metro, 140.000 euro. Tl: 636393237

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m2. Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Dena kanporaldera. Prezioa 150.000 euro. Ramón 615149900.

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukaldea jantokia aparte duela. 605 707 642.

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea.Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

### Alokairuan

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

Alokairuko pisu baten bila nabil, bi gelakoa 500-650 euro artean, edo hiru gelakoa 550-700 euro artean. 632129182 Claudio

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu bat alokairuan Puntapax-en. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Duplex modukoa, oso oso berezi jarrita. 627 496 740. Carlos.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 7866 .

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

## MOTORRA

### Salmenta, garajeak

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Baju komertzial bat salgai Erdiko kalean. 62 metro koadro, solairuarte batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekatxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaintzak

Zerbitzari euskaldun bat behar da esperientziarekin. Interesatuok idatzi email bat: atxega@atxegajauregia.com

Estetizista bat behar da ileapaindegi batean lan egiteko. 943361971

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsu bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketan. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zain–tzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Lan bila nabil. Portalak edo etxeak garbitzen, umeak zaintzen... Tel. 688 889 214.

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsaldez, abendutik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.



**Zorionak bikote!**
Muxuxxx...
Familiaren partez!



**Zorionak Nahia!**
Apirilaren 28an 8 urte egin zenituen, muxu haundi bat etxekoen partez.

## Heriotzak



**Ander Aranburu Leunda**
46 urterekin hil zen, apirilaren 30ean Legazpin



**Maite Zuloaga Salvide**
82 urterekin hil zen apirilaren 30ean Zubietan

**OHARRA:** Maiatzaren 13an ostirala aterako dugu hurrengo NOAUA!. Oharrak, zorion-agurrak, bidaltzeko azken eguna: maiatzak 9. erredakzioa@noaua.eus

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketak egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatetxeren batean harraskako garbiketak egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketan, plantxatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduak edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak.618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarekin 688826968.

**BESTELAKOAK**

Gazteentzako logela bat, berria eta argia. Umeentzat "Maxicosi-a" handia 9 - 15 kilo, jolastoki bat, hamaka bat eta bidaiatzeko sehaska bat. 673 256 566.

Mahaspildegi elkartean plaza bat salgai. Tel. 608 772 013.

NOAUA!ren aurrean domina bat aurkitu da. Galdu baduzu NOAUA!tik pasa. Dominan Diputacion de Ciudad Real jartzen du.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontaktua: 699 609 058.

Artzai txakur bat oparituko nuke. Baserri edo pabeloia zaintzeko ona da. Bost urte ditu eta beltza da. Txerto eta mikro-txipa jarrita ditu. Telefono zenbakiak: 943 365 228 / 660 093 071.

Landatan La mer kanpinean mobil home bat saltzen da. 656 791 676.

Kalexarren, azpiko kaleko garajeetan, katu txuri, marroia eta urre kolorekoa desagertu zaigu. 2015eko irailean jaioa. Norbaitek aurkitzen badu deitu: 943 371 220

Oraindik garantian dagoen sukaldeko indukzio plaka bat salgai. Tel. 645 701 879.

Egurrarekin sua egiteko ekonomika berria daukagu salgai. 637974994

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kiloa. 657 714 355

Memoria txartela galdu da argazki kamerarena, aurkitu baduzu eraman NOAUA!ra mesedez.

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. 943 363 201.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. Telefono zenbakia: 688 888 176. Pablo.

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

# Telefono interesgarriak

| | |
|---|---|
| Udala | 943 371 951 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 |
| Haur Eskola | 943 374 061 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 |
| KZgunea | 943 023 684 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 |
| Etumeta AEK euskaltegia | 607 609 379 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 |
| Noaua! Kultur Elkartea | 943 360 321 |
| Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza) | 677 373 466 |
| Eusko Tren | 943 470 976 |
| LurraldeBus | 943 000 117 |
| Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Anbulategia | 943 362 013 |
| Amenabar botika (lehen Oa) | 943 376 076 |
| Iturralde botika | 943 363 395 |
| DYA | 943 464 622 |
| Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Emergentziak | 112 |
| Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Banco Popular Español | 943 370 411 |
| BBVA | 943 377 155 |
| Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Telefonica | 1004 |
| Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak Maiatzak 05 - maiatzak 15

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | 05 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Ostirala** | 06 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Larunbata** | 07 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Igandea** | 08 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Astelehena** | 09 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Asteartea** | 10 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Asteazkena** | 11 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Osteguna** | 12 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Ostirala** | 13 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Larunbata** | 14 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Igandea** | 15 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
URRUTIA YURREBASO, MAITANE
Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani
943 55 77 38 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.**

# Agenda maiatza

## 06 ostirala

- **Maiatzaren 29ko giza-katerako izen ematea** 17:00-19:00 Zubietako Kaxkapen. 19:00etan, Sutegin.
- **Taper sex feminista** 18:00etan Potxoenean.
- **"Heroiak" antzezlana** 22:00 Sutegin.

## 07 larunbata

- **Maiatzaren 29ko giza-katerako izen ematea** 12:30tik aurrera, Sutegi ondoan. 17:00-19:00 Zubietako Kaxkapen.
- **Javier Muguruza eta taldea,** 22:00etan Sutegin.

## 08 igandea

- **Tipi-Tapa** Aitzaga, Txirristra, Bordatxo eta Artzabal tabernetan.
- **Maiatzaren 29ko giza-katerako izen ematea** 12:00-14:00 Zubietako Kaxkape egoitzan jarriko duten mahaian.

# Larunbat honetan Sutegin, Jabier Muguruzaren kontzertua

*Tonetti anaiak* diskoa plazaratu zuen udazkenean eta geroztik emanaldi ugari egin ditu. Berri onekin dator Irungo kantaria. Madrilgo "Premios de la Música Independiente" delakoan nabarmendua izan baita *Tonetti anaiak* diskoa.

Tonetti anaiak pailazoak ziren. Jabier Muguruzak, artean ume zela, clown familia ezagutzeko aukera izan zuen. "Kontua da gure aitaren lagunak zirela. Handik gutxira jakin nuen Oliver Tonettik bere buruaz beste egin zuela; ezin nuen sinetsi pailazo batek bere buruaz beste egin zezakeenik". Orain bizpahiru urte Oscar Alegriaren *Emak Bakia* ikusi zuen eta film hartan konturatu zen "clown bat ez dela sekula hiltzen, eta hori jakinda askoz lasaiago geratu nintzen; ni, edo barruan daramadan mutikoa".

Gaztetako oroitzapen harekin osatu zuen abesti bat, disko berriari izenburua emateko baliatu duena: *Tonetti anaiak*.




**Disko berriarengatik, 'Premios de la Música Independiente' saria eman berri diote Madrilen.**

### Jabier Muguruza eta taldea

- Maiatzak 7 larunbata, 22:00h. Sutegin.
- Sarrerak: Lizardin 8 euro aldez aurretik, 10 euro egun berean (leihatilan).
- Antolatzailea: Jexux Artze K.E.

## Ostiral honetan, taper sex feminista Potxoenean

Grina, jolas eta jostailuen inguruko taper sex feminista antolatu du Usurbilgo Udaleko Sexu Aholkularitza Guneak. Ostiral honetan, 18:00-21:00 artean Potxoenean. Parte hartu nahi dutenek, eman dezatela izena aurrez: sexuaholku@usurbil.eus 697 919 516 eta 943 377 110

## Maiatzaren 29ko giza katerako izen emateak

**Zubietako Kaxkapen:** Maiatzak 6, 7, 13, 14: 17:00-19:00h.
Maiatzak 8, 15: 12:00-14:00h.
**Sutegin:** Ostiraletan 19:00etan, larunbatetan 12:30ean.
**NOAUA!n:** astelehenetik ostiralera, bulego ordutegian.

## Datozenak

### Jai batzordearen bilera

Ekainaren 30etik uztailaren 3ra ospatuko diren festak antolatzen segitzeko Jai Batzordearen hurrengo bilera irekia, maiatzaren 9rako deitu dute. 18:00etan Potxoenean.

### Maiatzak 15 igandea, San Ixidro Eguna

- 10:00 Mikel Olanoren proiekzioa Saizarren (txorietan aditua). Ondoren, Anaerrekara txorien kantuak entzutera.
- 10:30 Pilota partidak (Usurbilgo lehen mailako txapelketako bi partida).
- 11:00 Trikitilariekin herriko ekoizleen azoka irekiera.
- 12:00 Meza Salbatore elizan.
- 12:30 Hamaiketakoa bertsolarien harrerarekin.
- 13:30 Bertso saioa: Amets Arzallus eta Elixabete Pagola.
- 14:30 Bertso-Bazkaria Saizarren. (Txartelak salgai Alkartasuna Kooperatiban, maiatzak 11 arte. Prezioa: 30 euro).
- 17:30 Herri kirolak.
- 18:00 Kalejira erraldoi eta buruhandien konpartsarekin.
- Oharra: eguraldiaren arabera, goizeko ekitaldia herriko plazan edo Askatasuna plazan egin daiteke.
- Antolatzailea: Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba. Laguntzaileak: Usurbilgo Udala, NOAUA!, Luma Gorri.

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno.943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ELORZA
OBRAK ETA ERREFORMAK S. L.
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

# OSASUN GIDA

## USURBIL OPTIKA

Entzumeneko aparatuak • Igerilekuko tapoiak neurrira eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10 • ✆ 943 370 269 • 675 708 654

**2x1**
PROGRESIBOETAN

## Ibaiondo

FISIOTERAPIA ZENTROA

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxa: 943 370 306

## Kima

MASAJE LEKUA
·Kirol eta terapeutiko masajeak

BERRIA!
Txirrindulariaren azterketa biomekaniko eta osteopatikoa

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

## Oinutsik

podologia zentroa

943 11 09 54 zubiaurrenea 2, Usurbil




## Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika
108/12 P.E.Z.

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua
Dermofarmazia
Produktu homeopatikoak
Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95 www.iturraldebotika.com

# OSASUN GIDA

## LOGOPEDIA

Haurrak / Nerabeak / Helduak
TERAPIA MIOFUNZIONALA

- Arnasketa arazoak, disglosia, degluzioa
- **Ahotsaren tratamenduak:** disfemiak, disfonia funtzionala sinple eta konplexua...
- **Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak:** dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...

**Aurreko hitzordua: 635 701 374**

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 **943 37 08 78** USURBIL

# Edertu zaitez!
















